



El cuello de la jirafa Tarteko zer horren bila Kritika

ANTZERKIA



Konpainia: Matarile. **Sorkuntza eta zuzendaritza:** Ana Vallés. **Eremu eszenikoa, argiak eta soinua:** Baltasar Patiño. **Interpreteak:** Oscar Codesido, Mónica García, Enrique Gavilán, Baltasar Patiño, María Roja, Ana Vallés. **Lekua:** Errenteriako Niessen aretoa. **Data:** Maiatzak 8.

Agus Perez

Eromen kontrolatu moduko batekin etorri da berriro Euskal Herrira Matarile galiziar konpainia historikoa bere 30. urtemugan.

Ana Vallesen sorkuntzak ulertzeko, alboratu egin behar ditugu ohiko antzerkiaren parametro guztiak, eta geure burua beste plano batean kokatu. Zintzotasun pertsonalean oinarritutako interpretazioak, argumentu logikorik eza, sentsazioei emandako garrantzia, pasarte literario hautatuak, solasaldi filosofiko interesgarriak, maila bikaineko dantza, soinubanda zuzenean editatua, arte kategoriako objektu eta argien diseinua... Haiiek guztiak eta beste asko dira Matarileren lanek eskaintzen dizkiguten osagaiak, finezia handiz dosifikatuak eta denen artean panorama aberasgarria ehunduta.

Hala ere, esandako guztiak ez luke ezertarako balio izango xede jakin baten ezean, eta nik esango nuke Vallesek eta bere talde solidarioak bilatu, aurkitu eta erakutsi digutena elementu horien pilaketa soila baino askoz gehiago dela: Oteizaren esangura metafisikoan, haien guztien artean dagoen hutsunea edo tartea dela, eta elementu fisikoen muturreko edertasuna eta ganora beraien arteko hutsune esanguratsuak sortzeko daudela eszenan. Gu liluratzen gaituzten bitartean harrapatuta gera gaitezen haien arteko amaraun ikusezinean eta, behin bertan bilduta, denboraren eta espazioaren nozioa galdu ditzagun, gure baitakoa beste dimentsio batera bideratuz.

Xede ikusezin horri begira, U formako agertokia paratu dute hamabi mahai zuri handirekin, eta haien arteko hutsune sinbolikoan gertatu dira Ana Vallesen eta Enrique Gavilan unibertsitate irakasle edadetuaren arteko solasaldiak, historia, denboraren eraginaz, filosofoen ezkortasunaz, izarren posizioez eta liburuen pisuaz. Haien artean txertatuta, umore absurduko eszena dibertigarriak, dantza pasarte artegagarriak eta edertasun handiko irudi plastikoak etorri dira, ikusleenganako konplizitatearekin konbinatuta. Hurbiltasun samur horren unerik gorenean, mahaietara jesarri dira interpreteak: batek konstelazioak margotzen zituen bere bularraldean, beste batek jaiotze data galdetu eta taroten proiektio egiten zuen... eta Baltasar Patiñok bere liburu artisaun miresgarriak aurkezten zizkien bertatik bertara ikusleei, haietatik irteten ziren musika, sagar erdibitua eta panpinatxoak deskubritu zituzten.

Lerrock Vallesen pentsamendu batekin amaituko ditugu: «Antzerkia ez da orain eszena bat eta gero beste bat, haien artean dagoena baizik, gorputzen artean dagoena eta begiraden arteko distantzia ere bai. Artauden arabera, antzerkia argi, musika, jantzi eta testurik gabe ere egin zitekeen. Bakarrik aktorea, ikusleen aurrean. Eta nik diot: aktorea ikusleen artean».